



Aita Santua. Juan XXIII. Aita eta Santua. Aita? 500.000.000-
ren Aita. Santua? Bai, Santua; Pio X-naren erretratu bizia.

Joan dan illean munduko periodikoen orri guztietan agertu
ta bere izena edo erretratu. Iru urte bete dira Jesukristoren
Bika.io edo Ordezko aukeratu ebenetik. Ori da ata mundu guz-
tiak agertu deitso bere maitasuna eta eskeñi bere txalorik
beroena.

Izan be, gaurko mundu bildurgarri onetan, megatoi eta
bildurrez inguratutako mundu zital onetan, badaukagu aita ba-
teren preminca, amore eta maitasun apur bateren bearra.

Bere izena eta erretratu agotik agora eta eskutik eskura
ibilli dira; eta berari begiratzean alako konfiantzea erne da
gure barruan.

Badaukagu, zorionez, aita bat, badaukagu jago!a eta zu-
zendari on bat. Bere esku bigunaren menpean nasaiago bizi
gara. Bageunkan bai bere bearra. Urte askotan izan dedilla.

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCO

VIII URTEA - N.º 85 ABENDUA (12) 1961 DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1

Megatoi eta komunismoak arduratan dauke,
bear bada, Aita Santua. Baña badao zeozer ar-
dura geiagooz begiratzen dabena: gure umien edu-
kaziñoa.

Izan be, gauzak bear dan tokian ipini gura ba-
doguz, auxe da garrantzi aundiagokoa. Mundua
au ta bestea izango da baña danen gantek dago
persona.

Umca landare bat legez eida. Txikitatik emon
bear jako jokeria eta erakutsi elburua. Oker ba-
doa zuzendu leike oraindiño, bigun dago. Baña
oker asten bada, kito. Ausi egiten da, arbola
zaarra legez. Nork zuzendu gero a?

Ara ba Aita Santuaren ardurea. Eta badauka
bere errazoi. Gaurko umeak dira biarko gizonak,
eta gaur biarko mundua egiten gagoz. Geuk egi-
ten doguna izango da. Denporarako ibilli bear.

Umea dana da begia, dana belarria. Papel zuri
bat legez. Gauza ederrez eta kristinau birtutez be-
tetan badogu axe batuko dogu. Ez zarritan egi-
ten doguna egin: txoriz bere burua eta oitura
okerrez bere biotza bete.

Ume onen mundua geuk egindako mundua
izango da ba. Egin daigun txikien arteko kristi-
nau mundu bat eta aundiak egiten diranean aun-
dien arteko kristinaudien arteko kristinau mun-
du bat izango dogu.

A. ZUBIZARRETA



Datorren konzilioa buruz

ZER ATONDUKO DA KONZILIOAN

Oraindik sekretoaren azpian dagozala esan gein-kez konzilioaren egin-bear geyenak. Baiña, olan be, asmau daikeguz gitxi gora-bera an batuko diran biereginkisunak, Aita Santuaren berbaldiak irakurriaz. Datorren konzilioaren arasorik gogorrena ta bear-bearrena antxiñako konzilioen irakaspentak ikusi ta guztientzat gaurko moldeetan aukeratutea ta argitaratutea izango da.

ELIZAREN BATASUNA

Ez dau dudarik: Aita Santuaren gogorik biziena Eleiza mota guztien batasuna lortutea da; auxe dala esan leike bere bizi guztian izan daben griñarik txalogarrietaikoa. Eta gure Juan XXIII' garren gogo biziak itxaropen aundiak sortu dauz danen biotzetan: bai katoliko bai zismatiku artean eta baita protestante artean bere.

Gaur batasunaren premiña gorrian gagoz, bes-telan komunismoak illuntziko gaitu bat-batean. Ondo-ondotik eskatu daigun, ba, batasun au: Kristok nai eban modura: "danok bat izan gaitazan".

GEROARI BURUZ

Datorren konzilioak ez dau eukiko tamañuzko siñiste okerrrik zuzenduterik beñipein. Baiña fedea galduten dagozaneri ta etxura-bako bizitzea darabilenari kontu emotea da bere zer-eginik garratzena.

Baiña mundua azken sasoi onetan asko ondatu da: bizi izakerak, bier egiteak, olgeta moldeak. Eta enbasu galantak be badaukoz gaur Elizak: komunismoa dala, materialismoa, ta jakintza barria dala... Etsai oneek deskalabru aundiagoak egin leikez gerorakoan; ta dike gogorrak

jarri bear yakeze, gure Eleiza Ama Santa dala baturik gero ta indar geiagokaz asten jun daian.

Begitu zelako bier atzekozaurredua! Zelak eurrea artu ta bide ona emon gaurko soziedade irakiñeari, biar frutu usaintsuak emon daiazan! Espiritu Santuagan itxaron daigun.



FEDEAREN IRAKASPENAK

Zenbaten ustea ete da konzilioak galasotube dituela oraingo fedearen kontrako sistemak: komunismoa, materialismoa ta laizismoa ta abar. Baiña ez da erreza ori kondenatzea, guzurrekaregia dago nasteuta orreetan-da.

Nik oba dala uste dot, siñiste makur orreet dabezan onak topau ta argitaratutea, geuk be baliatu daiguzan; eta ori esker-gaixtokocri ta fedebakocri Eleizan sartuteko bidea askoz be geiagoko laburtu deioegun. Auxe berau esan dan Batikanoko periodikuak.

APOSTOLUTZAZ

Gaurko soziedade zorabiyuan eleiz-gizonak zer egin bear daben fededun artean be esango dau konzilioak; zelan baliatu ta erabili bear diran radioa, telebizinoa ta gauza barriok be bai, katolikotasuna jente guztiari eroateko.

Ez dau dudarik liturjiaz be bierrin dabizela.

guk kristiñauok gero ta geiago sendotu gágizau
Elezak Meza ta sakramentuetan emoten deusku-
zan irakaspén eta graziakaz.

Eta mixiñoiekaz? Or be atea joko dau: or da-
goz paraje osoak fedea galdu bearrean Amerike-
tan, eta galdu dabe Europako erri aundietai-
koak...

BURURAPENA

Berba zirrinkada oneek amaitukeran, ez dot
astu gura gu guztion obligaziñoa dala konzilioaren
preparaziñoan parte artutea otoitzaren bidez.
Konzilioa ez da ba izatez gizonen egin-bearra,
Jaungoikoarena baiño.

Anai Yon Zabalgo

Bein Gabon bezperan arbo'a ikusgari bat ipiñi eben etxe baten ¡Baeu-
kan gauza ederrik naikua arbola arek! Bola dirdaitso eta kandelatxuak;
baita zintziizka laranja, sagar, intxaur urreztatu eta ainbat jostailu be.

Gela nagusian zut-zutik eguan.

Eta biaramonerarte umiak sartu ez eitezán ate guztiak itxi zituezan. Bai-
ña umiak ezik gañerantzeko guztiak ikusi eben arbolia. Eta katu, txakur eta
kanario kantariak be adi adi begira egon jakozan.

Baiña baegozan etxian orraitziño arbolia ikusi ez ebenak: marasmak. Jai
usaiñiera garbiketa itzal bat egin eutsen etxiari neskamiak. Eskobia, edo zapia,
edo ura eldu ezan baztar eta zulorik ezan gelditu etxe aretan.

Eta jakiña, al ebanak al eban tokira igesi juan biar. Orregaitik Gabon
arbolea ezin ikusi izan eben eta asarre egozan marasmak.

Eta zer jazoten jaken Ume Jesus-eri esatia erabagi eben. Eldu ziran, ba,
Ume Jesus-egana eta esan eutsen:

Ume Jesus, etxeko guztiak ikusi dabe Gabon arbolea eta umiak be biar
ikusiko dabe, baiña guri ezteuskue sartzén lagako eta ezingo dogu ikusi. Ba-
dakizu etxerik bein be ezloguna lagaten eta gauza polit guztiak atsegin dogu-
zana. Eta ederra egin deuskue ¡Garbiketia! Orain ezin geinke ezetara be ar-
boliarik ikusi.

Euren erostak entzun eta errukitu egin jaken Ume Jesus eta Gabon arbo-
lia ikusteko haimena emon. Gabaz, etxeko guztiak lo egozanean sartuko ziran
ge'an. Eta alantxe egin eben. Ganbarako marasmak geldi jatsi ziran eta ate
azpitik ge'a nagusian sartu. Danak, andi ta txiki, lodi ta erkin, an ebilzan
adarrik adar, ostorik ostó, gora ta bera, alde batetik bestera, oneri ikutu ta
areri begiratu. ¡Areixena ikusguria ta areixena poza!

Gustia ikusi ebenian bakotxaren tokietara juan ziran.

Gabon gaba aurrera joian, eta arbolia bedeinkatu eta jostailuak lagatera
Ume Jesus jatsi zan.

Baiña arbola ondora urreratu zanian, zer ikusi eban! Dana marasmetxez
beteta eguan. ¡Ederra buruaustea Ume Jesus-entzat! Gabon arbo'a ederra ma-
rasmetxeakin estalduta ikusten ebenian, zer esango eban etxeko andriak?

Ez, ori ezin alan izan zeitekian. Zerbait asmau biar zan.

Ume Jesus apur baten pentsaten geratu zan. Gero bere eskutxuakin arbo-
liari ikutu egin eutsan eta marasmetxe itxusia urrezko biurtu eban.

Arrezkerotik dira urrezko eta zidarrezko Gabon Arboletako dindilizkakuak.

Jose Maria Etxaburu-k euskeratua.

ESKERRAK DANORI

Anaitasuna-ren irakurleok. Igaro dan agustuan, Euskal-Akademiak bere laguntzailletzat artu nan. Eta orretarako, nombra-mentu ofiziala bialdu deust, diploma ta guzti.

Euskal-akademikeak, gi-on jakitunak dira. Eurak dauke euskerea jagoteko arazoa, eta eurak emoten deuskuez euskeraz ondo idazteko norma zuzenak.

Arri'asuna-n eskribietan dogunok, beti euki deusagu Euskal-Akademiari errespetu aundia; eta pozarren errezibietan izan doguz beti bere orientaziño guztiak.

Diploma orretan, euskal-akademikoak eskerrak emoten deuskuez gure errevisa txiki onetan egi'en dogun lanagaitik, eta biotzez animetan gaitue aurrera jarraituten.

Anaitasuna danona da. Zeuena ta geurea. Poztu gaitzean ba danok, Euskal-Akademiak erakutsi deuskun estimaziñoogaitik. Eta orain itxi eistazue, euskeraz idazten lagundu deusten guztieri eskerrak emoten.

Eskerrak euskaltza'le jakituneri, batez bere Federico Krutwig jaunari. Orain amar urte direala, euskera-garbizale itzala nintzan ni. Sasoi atan, Krutwig akademikoa ezagutu neban Bilbaen, eta jaun onck egiazko hidera ekarri ninduan.

Berak erakutsi eustan, euskerea ez dala aingernuen verbetea, aragi ta aurreko gizonena baiño; ez izaretakoa, mundukoa bai-

ño; ez laboratorio baten egiñikoa, kaleko gizonak erakuten dabena baiño. Berak erakutsi eustan, euskereak bizi gura badau, eurrez ta bildur barik erbesteko verbak artu bear ditua'a, munduko izkun'za guztiak egi'en dabene antzera.



Aitxe Imanol Dakarren, mariñero yantzitze

Orduarte ni euskera garbiaren esklavu nintzan; eta bere garbitasuna erdal-usaiñeko verbakaz es loituteamen, sarri askotan gaur a on asko e an baik geratuten nintzan, edo iñok u'ertuten ez zianan itzak erabilten ni'uan, edo —txa rago oraindiño— erderara jotene neban.

Krutwig jaunaren bi'artez, egia aurkitu neban, eta egiak libre egin ninduan.

Arrezkero, laboratorioko euskera kimikoaren kate astunak zaitu egin nebazan, eta neure pentsamentuarentzako ezelako traba ta tabu barik idazten asi nintzan, *munduko idazle guztiak egiten daberen antzera*.

Eskerrak Bermeoko arraintzaleeri, euskera bizia irakatsi deustelako. Eguneroko euskerea, bizitzan ondo errotuta dagoana. Euren artean bizi izan naiz, gau ta egun, leu urtean, Dakar aldeko itxasoan. Eurak izan dira nire maisuak: Esteban Uria, Laukario Galdaraz eta abar.

Euren verbeta bakarra, euskerea da. Euskeraz ebazten ditue euren bizitzako problema guztiak, problema aundiak komplikatuak, ekonomiko, sozia', profesionalak. Nik neuk, Kristoren dotriñea erakutsi bear izan deustet problema guztion gainean, eta orretarako euren euskerea erabili bear izan dot. Euskera bizia, egunerokoa, erreza, ezaguna. Beste euskera klaserik ez dabe gura. Eta errazoa dauke, verbetea gizonarentzat da-ta, eta ez gizona verbetearentzat.

Bein, Jesukistoren Bi. it. a batzuk erregeatu eustan Bilbaoko adiskide batak, Dakar aldeko arraintzaleeri emoteko. Parkatu deista'a, baiña nik ez neutsen emon. Barruak ez eustan itxiten. Liburua ederra zan; hitxura polita eukon, letra argia, paper fina. Baiña irakurteko guztiz gatxa zan, bere euskerea arkaismoz eta verba ezezagunez beterik egoalako.

Oraintsurengo ka'endario eder bat atara dabe Bizkaiko Kristiñau Gazte Langilleentat, jocsistentzat. Egutegi polita, ikusgarria. Nik pozarren zabalduko neuke Bermeo'lo arraita'een artean. Baiña zetarako, bere euskerea erriarentzat ez da-ta? Zetarako emon arraintzaleeri? Ez irakurteko? Euskera idatziari oraindiño konfiantza gi-


txiago enki deioen? Penagarria da, baiña aolantxe da. Noiz konturatuko gara egia onegaz Bizkaiko euskaltzaleak?

Eskerrak, verbaz naiz kartaz animatu naben guztieri. Trista'dietan, bide artezetik zintzo jarraituteko arnasea emon deuste, eta atsekabeak pazientziaz eroateko indarra. Egia esateko, disgustu asko igaro bear izan dot, orritxu onetan erabilten dodan euskerea dala ta ez-tala.

Batzuk traiduretzat artu nabe, gure izkuntza maiearen areioakaz bat eginda nagoa'akoan. Beste batzuk ez dabe *Anaitasuna* artu gura izan, eta propaganda kaltegarria egin dabe kontra. Erri baten len eun errevisa artzen zirean, orain barriz batbere ez.

Zazpi urteotan, txitean pitean karta gogorak errezibietan izan dodaz, gure errevistako euskerearen kontra edozer gauza esaten ebenak. Baiña eurakaz batera, gure alde dagozan kartak-bere etorri jataz, eta persona askok esan deuste gure errevestea pozarren irakurten dabela.

Azkenik, eskerrak euskal-akademikoe-ri, batez-bere Arrigaray, Michelena ta Villante jauneri, *Anaitasuna*-ri beti erakutsi deustoen oneritxiagaitik.



ASTEN ORAINDIK

Gure errietan, batez be aundiak badi-ra, kanpotar beargin asko ikusten doguz. Eta geroago eta geiago gañera. Emen jasotzen dana gauza garbia da: euren errietan ez dago nun bearra eginik eta dagoan tokira jo bear, edo gitxi irebasten eta geiago eta errezagotz irebasten dan tokira aldatu bear.

Gau a garbibaña z'inkerik askorekin nastu a geroago, maiko asko eniturri dana: sendi erdituak, andra-gi on banatuak, gurasoak ia e agutu bage bizi diran seme-alabak; norberaren erria, etxea, sukalde xamurra laga bearra, eta dana zelan edo alan bizitze arren. Noiz arte gertaera oneek? Euren errietan bizitzeko lan aurkitzen ez daben arte.

Ez da au benetako gaitza? Egiten da osatzen bear dan beste?

Bilbao inguruak

Negargarria zan Bilbao inguruetako menditxoak cukeen itxurea. An egoazan Monte Cabra, Monte Banderas, Berriz, Ugasko, La Cantera eta abar txabolez beterik. Txabo'a txiki, estu eta ezer bagekoak. Ez cukeen urik, argirik be ez askok. Txabola asko ezer utzak ziran. Garbitasunik be ez egon, ezin leikean eta. Eta bizi-ezinik etorritako ainbeste ta ainbeste beargiñen andra eta seme-alabak bizi ziran or!

Ia danak, cunetik 75, euren etxetxua; Alan da guzti be izerdi asko kosta, jasoak ziran eta askotan euren irabazi danak bertan itzulita. Ba-egozan 30.000 eta 40.000 etxe-egiten emon ebezanak eta illean 1.500 kutxatuta.

Gañera etxe edo txabola orrek legearen iskutuan jasoak ei ziran. Baña aterperik ez daukan familiak legea austen ete dan txabola bat jasoz?

Eta zer gerta'zen da txabol-tegi orrek azat'zeko? Beargiñak eskatzen dira, bearra emoten jakue nun bizi aukeratu aurretik eta, ja'iña, txabo'ak sortzen dira nun-nai. Eta txabo'ak izan bear geiagorako ez dago ta.

Osarri erreza cukiten dan onek baña lenenguetan, ez orain, etxeak aurrez garatuak cuki ezkeru.

Otxarkoaga azkatzea?

Gauzak eta gizonak onela egoazala Otxarkoaga asmatu zan. 3673 pamilientzako lan bizi-leku egiten asi ziran toki orretan

eta orain amaituan doaz. Leengo etxe-txabo'a arek lurreratuz, barrizatu, garbitu, egin dira mendi orrek eta eurretan bizi zirean beargiñak toki batean batu: Otxarkoagan.

Baña askok pena dabe euren etxerik itea. Pera dabe leengo etxea euren eb-lako, euren izerdiz jasoak ziralako eta oraingo etxe barriak eurenak ez direlako, euren 1.500 irebasten dabe'a 420 pesetako errenta ordaindu bear dabe'lako. Gañera 30.000 edo 40.000 peseta etxe-egiten uldu eb-zanak 1.500 be ez ditu jaso ol, tella eta danen artean; askok ezer be ez astiro oratu ez eutze'lako: Otxarkoaga Bilbao'tik urrut egiten da eta autobusak ez dagoz bi edo lau biderrez fabrika osterea egiteko moduan.

Oraindik eskolarik, be ez dago. 4.000 ume inguru izango dira laster erri barri or-tan. Egiten dagoz, bai, baña ez dakit bear izango diran beste eta aurtengorako ez be-ñepein.



Txarto oraindik Otxarkoagan be, Zer egingo dabe beargiñak? Iges? Negargarria benetan, euren etxeetara esku utzik biurtu bearra! Nora jo? Zelan bizi?

Askatze bat legez edo erremediatzat sortu zan Otxarkoaga baña beargiñak ez dagoz posik (ze'an egongo dira ba?). Otxarkoaga eginkin aundi bateren asierea baño ez da. Ez gaitzela amai bako asierean geratu.

Eta guri zer?

Eta one'ariko buruausterik ez daukanak zer diñue? Batsuck, alperak direala, nai beste irebasten ez ba-dabe euren errua da'la eta etxera biurtu baño ez daukeela. Beste askok, ganozako etxeak egitea baño ez eukeela eta etzirela lurreratuko, etxe barri politak daukaze'a orain eta zertan dabitzen mar-marka. Askok ostera, etxeak aukerean egon zirela eta billatu baño ez

ebela euki, ez zirela egon eurek txabolarik egin bearrean eta abar.


Eta guk? Zer diñogu? Gauza asko eta ez beti kristiñau batek esan leikeanak.

Aragiz eta azurrez egiñak gara danok gu eta orreek. Danok gara gizonak eta ko'ore bateko odol'a daukogu danok. Danok daukogu bizitza egoki baterako eskubide edo deretxua, eta emen ezin badogu beste toki batean. Mundua gizonena da eta ez onena edo orrena, dauona baño. Ezin geinke bastertu gizonik. Ez gaitze'a izan itxu eta biotz gogorak. Errespetoz begira daiegun gi'on dan-daneri. Benetako justiziak eskatzen deuskuna da au.

Txarto gabiltz justiziko saillean eta Kristok agindu euskun «alkar maite Nik maite zai'uztedan legez».

Kristauak ba-gara, ezin geinke, batez be gaur, esan: «Eta niri zer?».

Arriola



1. ADENAUER

Azkenean, Adenauer dogu barriro Alemaniko agintari nagusia edo kanzillerra. Politiko askok, antza, beste nagusi gazteago bat gura eben, lengoa zarregia zala-ta, baña beronek eztau izan gura. Orregaitik, Alemaniko politikoen artean itaun urduritsu bat sortu da orain: zenbat denpora egingo dau Adenauer'ek agintaritzan? Erantzuten dabe batzuk lau urteetan iraungo dauala, gero, azkenengo illeetan bere urrengoari lekua itxita, bera uste oncan geratuteko; beste batzuk, barriz, diñoe urte bi bakarrik egingo dauazala, bere gaurko politika bete-arte; eta azkenez, irugarren batzuk uste dabe Adenauer'ek al dauan denpora guztian jasoko dauala agintaritzako ardurak. Zer? Eztakigu, baña, dana dala, Alemaniko bazter guztietan zeozelako pozgabe bat asmaten da, artega berezi bat. Deuztarrak bere naziñoaren osotasuna gura dabe, baña rusoak, eta sartaldeko jauntxoak be, gero ta trinkoago dagoz ezetzean.

2. EUROPA, BATASUN BIDEETAN...

Austria, Suiza ta Suezia bidezkoak egiten asi dira Europako Alkar Merkatuan sartuteko. Aurten go azkenetan izango ei da. Eta olan, Euro-

pako naziño geienak aurkituko dira Alkar Merkatu orretan batuta, bat eginda danak.

Europar, amazortzi naziño dagoz. Onezkero zazpi Alkar Merkatukoak dira: Alemania, Frantzia, Italia, Belgika, Holanda, Luxemburgo ta Grezia.

Sartuteko baimena eskatu dabe, beste iruk: Ingalterra, Dinamarka ta Irlandak.

Bidezkoak edo bearezkoak egiten asi dira, beste iru: Austria, Suiza ta Suezia.

EFTA'koak dira: Portugal, Noruega ta Finlandia.

Eta czetarako ebakirik artu gabe: España ta Turkia.

3. POLONIA, komunismoaren oinpean egonda be, erri katolikoenetakoa da.

Orixe erakusten deusku Krakobia'ko ikasle gazteeri egin yaken enkueta batek. Tankeak, zigorrak ta lege gaiztoak ezin izan dabe Poloniako sinismena ta fedea bapeztu.

Krakobia, Barsobia ta Lode'en atzetik, uri andienetakoa da. 425.000 biztanlegaz. Ta itaunketa au ikasle gazteen artean egiña da, amairutik amazortziraiñoko neska-mutillen artean. Zelako jarraibide galanta azalduten deuskue danori!

Euneko larogei (80%) siñismendunak dira.

Euneko bat bakarrik (1%) elcizaren arerioak. Mutillak, euneko larogei (80%) elcizara joan oi dira.

Neskak, euneko larogeta bederatzi (89%).

Mutillak, euneko berrogeta amasei (56%) domeka-domekatan joaten dira mezatara ta euren erlegiñoako egin-bear guztiak beteten ditue. Neskak, barriz, euneko irurogeta bat (61%)

Elcizaren arerioak dira, mutillen artean, 0,5%, eta neskan artean, 0,8%.

Espaniko ikasle gazteak itxura atsegingarriagoa erakutsiko leiskiguc? ala gure Euskalerriko neska-mutil gazteak?

PEDRO MARI

Gurasoak, ejemploa!

Artikulutxu au irakurten zagozana aita edo ama bazaitut, irakurri mezedez astiro-astiro, zeuretzako, gura. oentzako egiña edo itatzia da-ta.

A) Lenengo robera ezi; gero semea

Bai. Semeak ezi edo edukatuteko lenengo gurasoak ezi bear dira; b. stela eztago semea. iteirik. Semeak edukatutea da, nire iitxiz beintzat, aita baten eta ama baten bierrik printzija eta ta gogorrera. Gaurko egunetan ez da iango bear bada ain gogokoa biar au, gilarte guztian, zar eta gazteetan, txiki eta aundietan, danetan guzur-azkatasunaren sustraia sortu da ta baiña, dana dala, premi aundikoa da biar au.

Semeak eziteko denporea eldu baiño len, norberaren edukaziñoak, gurasoaren edukaziñoak amaitua legez egon bear dau. Gi. onak, eta bardin emakumeak, aia edo ama izateko ordua datorrenca prest egon bear dau gurasotasun ori semien aurrean agertuteko. Lenengo norberaren notin edo persora ezi, eta «gero», ez ariñago, «gero» semea. era. Ez zaiteze nekatu a perrik semeari «—au ta oriegin bear dozuz,» edo «—a. di. ñoa ta besta egiña debekauta daukozu» e. aten. Ez zai. eze engañatu: umcaren begiak, begi zorrotzak dira. Zuen semiak «txarto edo ondo dagoala» esaten deutzazun ori, (aitu ondol), leleno zeukan ikusi daie. la aragituta. Izan leiteke aginduta derrot agindu ori betetea; baiña azkenengo onek ez dau umearengan sustrairik artuten, besteak bai ostera. Zeuek egiten dozuen guztia egiteko ez dau bear iñoren agindurik. Gurasoen egitera eta esakera, semearen host sentzunetatik sartu oi da.

Auxe dozu, guraso maitea, semeak eziteko biderik onena, laburrena ta berebizikoena.

B) Jaungoikoaren bi'dur santuan ezi semeak

Ez dago beste erremediorik: Jaungoikoaren bi'dur santua zuen semien ariman ernetzea gura ba dozue, izan zaitez, bizkaitar guraso maitea, Jaungoiko-zalca, eliz-

L E I D U

Gogo txarrez, baiña papelak eta inpreteak gorantz egin deuskuenez, errebistatxo onen prezioa igon bearrean aurkitzen gara. Datorren urtetik ba numeroko errial bat geiago izango da. Baiña diñotzuedan lez, ez geure gogoz.

korra. Erakutsi beti umiari Jaungoikoaren egi bigun baiña zorrotza esaten. Ona emen Pio XII garrenak dirauskuna: «Gurasoak, emen pentsatu egia argiaratuteaz eta euren bierren zear eroan bear daben bide zuzena erakutsiaz zuen biarra amaitu danik, ez; bear bea. rekoa da gafiñera zuek erakutsi. en datsa uen oi zeukan a agi u. a ikusi eragitea. Jaungoikoa. en bakca ikusi daie. a zuen arpegian beti. Ez aztu goi. iko (sobrenatura. at) motibuak ipinteaz be; esate baterako, em egiten ba dozuz, Jaungoikoa asko poz. tuta da» edo «Ama Birjiñaren arpegian irribere. rretxu bat sortuko da» esanaz.



C) Ta... umea ezta txakurra!

Ez, jauna! Umea ezta txakurra. Agindu zenkio; baiña ez txakurrari legez: «—ia umiak kanpora; esan deutsuetana egin txistik egin barik, ta kitxu; ez asi niri emen zergaitik edo bestea zergaitik» itauntzen, jul Bestela... «Gurasoak, kontuz ibilili Ori ezta semeak eziteko bidea, txakurrak ezitea baiño. Zure zortzi, amar, amabi urteko semeak Jaungoikoak emondako adimen bat dauko, zeuk daukozun legez. Umeari askotan, geinetan, ia beti, aginduaren errozoi edo motibua emon bear iako. Ez pentsatu aita edo ama zarealako zeure burua esaten deutsun guztia agintzeko baimenik daukozunik, ez, ta ezi! Eta zeuk konturatu barik aginduen bat oker emon eta semeak— «aita, ori txarto dagoala pentsaten dot...» esaten deutsuancan, «—semetxo, errozoia daukozu; parkatu» esan. Ta ez uste iran au egiñaz semearen aurrean txarto geldituten zarcanik, ez. Zuk, gaur aita zarean orrek, au egiten badozu, zure semeak biareti aita danean bardin egingo dau bere semiak. Eztago ejemploa. lako biderik, ez kolegio, ez eskoia ta ez maixurik.

«Ze. lako gurasoa, alako semea» (Esakera).